

ERMUKO TXIRRINDULARITZA FRUITUAK EMATEN ARI DA


Alberto Lasuenen eskutik, Ermuko txirrindularitzak aurrera darrai, 1979an sortu zenetik amaigabe-ko txirrindulari harrobia bilakatu delarik.

Gaur egun, hiru maila ezberdinetan daude banatuta txirrindulari taldeak. Alde batetik, txirrindularitza eskolako haurrak ditugu, Jesus Gonzalez eta Jose Correa-ren eskutik, 20 haur ingururekin.

Txirrindulari eskola honetan, alebin, benjamin eta infantil mailako haurrak ditugu. Kadete eta jubenil mailan, Elorrioko Txirrindulari Taldearekin bat eginik ditugu Ermuko Txirrindulari Taldekoak, eta hauek Galder Lasuen gazteak entrenatzen ditu.

Havez gain, Ermuko Zikloturista Taldea ere bada, 30 pertsona inguruk osatzen dutelarik. Ernesto Izagirre (psikologo lanetan), Indartu (lan fisikoetan), Renault eta Talleres Reco (dirulaguntzak) eta Udalaren laguntza ezinbesteko dira Lasuenen us-tez proiektuak aurrera egiteko, eta benetan eskertzen dute hauek guztien laguntza.

Denboraldian zehar, lasterketen egutegia nahiz eta oso luzea izan, gehienetan han izaten ditugu, urte bukaeran 60 lasterketa egitera iristen



Ermuko txirrindularien harrobiak momentuz ez du agortzeko arriskurik.

direlarik. Ikasketak izaten dira oztopo nagusi; txirrindularitzak entrenamendu asko eskatzen duen kirola baita.

Lasuenek ordea, "txapelketa irabaztea baino, gazteei txirrindulatzak egiteko aukera eman nahi diet, inoiz ere ikasketak alde batera utzi gabe".

Ermuko txirrindularitzak eman dituen azkenengo fruituak, Igor Astarloa eta Pedro Horrillo gazteak ditugu.


Igor, Durangoko Cafe Baque taldean dabil, bigarren urtea duelarik zaletu moduan. Aurten, Eibarko

Memorial Balenziaga eta Lizarran lortu ditu emaitza onenak. Lasuenen iritziz "Igor plaza gizona da, duen guztia ematen duen mutila".

Pedro Horrillo ere Cafe Baque-n dabil, aurtengoa hirugarren urtea duelarik zaletu mailan. Espainiako selekzioko partaide dugu orain dela gutxi Italian izan delarik, nahiz eta gaisotasun batek lasterketetatik kanpo utzi zuen. Lasuenek Pedrotaz buruz zera dio: "izugarritzko bihotza du, bere errekonferentzia maila profesionalen hainakoa da".

ASIER IBAIBARRIAGA

19



**BAR
GERALEKU**

Bost'erdietatik zabalik.

San Inazio, 5. • ☎ 17 00 32



Kopi-Fax

**FOTOKOPIAK - KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN**

Lekuz aldatu dugu!!!

K/ Komentukua, 6 beheka - 48260 ERMUA
TEL./FAX (943) 17 42 89